

Funtsezko baliabideak: Baliabide materialak eta ukiezinak

Aurretik esan dugun bezala, gure enpresaren helburua maskoten ongizatea eta pertsonen bakartasuna gutzitzea da, batez ere adineko pertsonena. Proiektua bideragarria izateko beharrezkoak dira bai baliabide materialak bai baliabide ukiezinak.

Baliabide materialetan negozioaren lokala sartzen da. Aurrean barra duen barra-gunea kokatuta dago eta atzean maskotak uzteko gunea dago. Barreran beharrezko materialak daude: altzariak, sukaltzeko tresnak, hozkailuak, kafe-makina eta ostalaritzako ohiko materiala. Zaintza-zonarako beharrezkoak dira kaiolak edo egonaldi txikiak, jolas-guneak eta ura eta janaria jartzeko ontziak. Horrez gain, animalien ongizatea zaintzeko garbitasun eta desinfekzio materiala behar da, eta baita segurtasun sistemak ere, adibidez kamarak, alarmak... animaliak ihes ez egiteko.



Baliabide ukiezinak ere garrantzitsuak dira. Ostalaritzan dugun esperientzia eta bezeroei ondo arreta emateko gaitasunak behar dira. Era berean, maskotak zaintzeko oinarrizko ezagutza izatea komeni da, nola portatzen diren eta zer behar duten jakiteko. Albaitariekin eta hornitzaileekin izandako kontaktuak lagungarriak izango dira behar bereziak sortzen direnean. Gainera, marka-irudia eta bezeroek duten konfiantza funtsezkoak dira maskotak lasai uzteko. Azkenik, kudeaketa-gaitasunak behar dira, hala nola erreserbak antolatzea, sare sozialetan jardutea eta webgune bat edukitzea jende gehiagorengana heltzeko.